

## GEURIEN ZER? Herriko elkarteak zertan diren



**Hegaluze Itsas Zerbitzuak, SL** 2002an jai zen. Urdaibaiko Erreserbaren garapena sustatzeko asmoz. Horrela, turismoaren sektoreari begirako proiektua abiarazi zuen. Izan ere, turismoak jarduera berriak behar zituen eskualdean behin betiko indartzeko.

### Zer egiten dugu?

Orokorrean, Urdaibaiko Biosferaren erreserbatik eta Euskal kostaldetik bidai turistikoak itsasontziz egiten aritzen gara. Azken urteotan, zetazeoen ikustaldiak egitera zabaldu dugu gure eskaintza. Horrez gain, kirol-tituluak lortzeko eskolak eskaintzen ditugu.

### Zein da euskararekin daukagun konpromisoa?

Geurien be bai proiektuarekin elkarlanean gabiltza, Bermeon euskararen erabilera sustatzeko. Horretarako, gure webgunea: [www.hegaluze.com](http://www.hegaluze.com), euskaraz daukagu. Gure bezeroekin euskaraz harremanetan jartzen ahalegintzen gara, iragarkiak ere euskaraz egiten ditugu. Azkenik, diru-kontuak eta aurkezpen-txartelak euskaraz egiteko konpromisoa hartu dugu aurten.



## EUSKAL ABIZENA MODU OFIZIALEAN ETA LEKU GUZTIETAN EUSKARAZ IDATZITA IZAN NAHI BADUZU, HIRU PAUSUTAN EGIN DEZAKEZU, ERRAZA DA:

- 1** Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.
- 2** Han emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.
- 3** Agiri hauek eraman:
  - **Nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.**
  - **Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Epaitegian eskatzen da.**
  - **Erroldea agiria. Udaletxean eskatzen da, eta, adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.**
  - **Familia liburuaren fotokopia. Ezkonduta bazaude edo seme-alabarik baduzu.**
  - **Seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia. 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.**

# Guk abizena, zuk?

Euskal abizenak euskarazko grafiaz idatzita izan nahi dituztenentzat Guk abizena, zuk? kanpaina martxan jarri du Bermeoko Udalak UEMaren laguntzarekin:

# GEURIEN be BAI

## GEURIEN be BAI



4. zenbakia | 2010eko uda



## Egarririk ez BERMEOKO ARRAIN AZOKAN

**Maiatzaren 21ean**, Nestor Basterretxea aretoan elkartu ginen **Geurien be bai** proiektuan parte hartzen dugun eragileak: elkarreetako kideak, enpresetako ordezkariak, merkatariak, kirolariak...

Ekitaldian, Bermeoko freskagarri berria ezagutu genuen guztiok: Kalinpan. Horretarako, hainbat kideren laguntza izan genuen: Anabel Alegriak (Besalde elkarteko ordezkaria) eta Ramon Garaizarrek (Kankinkabara txistu taldeko kidea) freskagarri isotonikoaren aurkezpena egin zuten. Horrez gain, Izortz Zabala arraunlaria eta Juan Olarte, Taraska atletismo taldeko kidea, izan genituen Kalinpanen puzzlea osatzen.

Kalinpanek, berriz, Nestor Basterretxea aretora hurbildutako guztien egarrira ase zuen.

Ekitaldi laburra baina ikusgarria. Bertan, eskerrak eman genizkien **Geurien Be bai** proiektuaren sinatzaileei euskararen alde egiten duten esfortzu eta ahaleginarengatik.

28 Elkarte eta txoko  
11 Enpresa  
37 Merkatari  
7 Turismo-eragile

AURTENGO  
HITZARMENAREN  
SINATZAILEAK

83  
IZAN DIRA.

Sinatzaile hauek guztiek euskararen aldeko konpromisoak hartu dituzte. Batzuek konpromiso xumeak, beste batzuek konpromiso handiagoak, baina guzti-guztiak garrantzitsuak euskararen erabileran aurrera egiteko.

Ziur gaude guztion elkarlanari esker, aurtengo fruituak oparoak izango direla!



## BANKETXEEKIN LANEAN

Urtero-urtero, Bermeoko elkarteek euskararen erabileraren inguruko azterketa egiten dugu. Helburua izaten da elkarteek euskara zertarako eta nola erabiltzen duten ezagutztea.

Egindako azken azterketaren ondorio garrantzitsua izan da, elkarteek banketxeekin dituzten hartu-emanak gaztelaniaz izaten direla askotan, nahiz eta gaitasuna egon euskaraz egiteko.

Hori dela-eta, Bermeoko banketxeengana jo dugu egoera horri irtenbidea emateko.

Bankoa, BBK eta Euskadiko Kutxarekin harremanetan jarri gara eta haien konpromisoa lortu dugu gai hori lantzeko: banketxeek herriko elkarteek, gutun baten bidez, jakinaraziko diete euskarazko zerbitzua emateko gaitasuna dutela eta, bide batez, euskaraz eskaintzen dituzten zerbitzuak zeintzuk diren argituko diete.

Izan ere, Bermeoko banketxeetan ere aukera daukagu euskarazko zerbitzua jasotzeko eta solaskide euskalduna eskatzeko.




## BAI ESAN?

Nola erantzuten diogu telefonoari? Euskaraz? Gaztelaniaz? Lehendabiziko hitza oso garrantzitsua da. Izan ere, lehendabiziko hitz horrek hurrengo elkarrizketaren hizkuntza baldintza dezake. Hori dela eta, udazkenean, telefonoari euskaraz erantzuteko sentsibilizazio-kanpaina jarriko dugu martxan.

Sentsibilizazio-kanpaina martxan jarri aurretik, Bermeoko enpresa eta elkarteetan neurketa egingo dugu. Neurketa horren bidez jakingo dugu zenbat eta zein erakundek egiten duen lehendabiziko hitza euskaraz.

Behin, egoera nolakoa den ezagututa, sentsibilizazio-kanpaina diseinatu eta martxan jarriko dugu.

**Bai, esan?** Horrelako aldaketa txikiak eragin handia izan dezakete euskararen erabileran, beraz, badakizu, hemendik aurrera, lehendabiziko hitza euskaraz.



Kirola praktikatzen ari garela nekatu egiten gara, izerditu, batzuetan lehertu. Baina horrek guztiak konponbidea dauka orain: izan ere, Bermeok freskagarri berria dauka, KALINPAN izeneko. Edari isotoniko honek egarria asetzen du, haren burbuilek indarra bikoiztu egiten dute, kontzentrazioa zorrotzu eta aurrera egiteko gogo sortzen du. Baina KALINPAN edaria baino gehiago da... Kalinpan kirolaria da.

**KALINPAN** herriko kirol elkarteek konplizea edo laguntzailea izango da; antolatutako kirol ekitaldietan, sariak banatzen lagunduko digu, gure taldea animatzen... Zein helbururekin? Kirolari eta herritar guztiak ikus dezaten, kirola egitea ona dela, eta ez dugula inongo arazorik kirola euskaraz ere egiteko.

**KALINPAN** maskota hainbat kirol egiten ikusiko dugu han-hemenka eta paparrean eroateko txapak ere banatuko ditugu.

## Zer egin behar dugu KALINPAN gure laguna ere izan dadin?

ERRAZA DA:

- Udaleko euskara sailean **gure interesa adierazi** beharko dugu (idatzi: euskera@bermeo.org; edo deitu: 94 617 9122)
- Herriko beste **kirol elkarteekin ados** para beharko dugu, egutegia egiteko eta KALINPAN txandaka erabiltzeko. Horretarako, gure urteko ekintzen egutegia utziko dugu euskara sailean.
- **Arane Kiroldegian hartuko eta utziko dugu KALINPAN:** kirol elkartearen ardura izango da behar duen egunerako hartzea eta, ahal dela, egunean bertan edo hurrengoan utziko da Kiroldegian.
- **Euskarak gutxieneko presentzia eta erabilera** izan beharko du ekitaldian edo ekintzan: aurkezpenak, idatzizko materiala...

# KALINPAN

ibili,  
izerditu  
eta edan

## Noiz erabiliko dugu KALINPAN?

- Sariak banatzerakoan.
- Gure taldea animatzeko.
- Ekitaldian berba egiteko.
- Triptikoa/orriak banatzerakoan.
- Tiketak saltzeko.
- Zuek nahi duzuenean.

## KALINPANen lagunak

KALINPANek, DAGOENeko, HAINBAT LAGUN DITU:

- Arraun elkarteak.
- Xixili gimnasia taldea.
- Taraska atletismo taldea.
- Sollube 707 mendi taldea.
- Artza pelota elkarteak.
- Txirringularitza taldea.
- Aritzatxu triatloi taldea.
- Bermeoko Ehiza, Arrantza eta Tiro elkarteak.
- Alejandra Ispizua (gimnasia).
- Bingen Arostegi (futbola).
- Izaskun Mugika (eskubaloia).
- Izortz Zabala (arrauna).
- Joseba Kerejeta (urpeko arrantza).

## Zuk ere KALINPANen laguna izan nahi duzu? Beraz, badakizu,

- **IBILI:** kirolean ibili eta, bide batez, euskara ere erabili.
- **IZERDITU:** kosta ahala kosta, nekez edo errez.
- **EDAN:** Ase zure egarria, euskararena ere bai.



## GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Gidabaimena prestatzeko materiala euskaraz dagoela iragarri genuen aldirikari honetako azken alean eta pasa den urtean hasitako lanari segida emateko, aurtun Euskara Sailak diru-laguntzak emateko deialdia egin du, hain zuzen, gidabaimena prestatu eta azterketak euskaraz egiten dituzten bermeotarrei 150 euroko diru-laguntza emango die Udalak.

Ikasleek teorikako liburua eta testak egiteko informatikako programa dituzte eskura, baita azterketak euskaraz egiteko aukera ere. Horrela, gidabaimena euskaraz ateratzen dutenei erraztasunak eman nahi zaizkie laguntza horien bitartez.

**Diru-laguntza eskatzeko epea urriaren 1etik 29ra arte izango da.**

## BERMEOKO AHOTSAK

Bermeoko ahotsak batzeko egitasmoa lantzen hasi da Udala. Gure aurrekoen ondarea ahozko transmisioaren bitartez heldu zaigu eta egun transmisio horretan eten handia izan denez, ahozko memoria, oroimen kolektiboa jasotzeko ahalgina da proiektua. Horretarako, 80 urtetik gorako nagusien ahotsak jaso gura dira, euren bizipenak bidez grabatu eta internet zabalduko dira: baserri eta itsas aldeko ohiturak, jaiak, antzinako sinesmenak, harremanak, emakumearen egoera, jolasak, kantuak, istorioak, mendi aldeko eta itsaso aldeko euskara... horiek denek lekua izango dute bilketa lan honetan.

**Proiektu honetan laguntzeko prest dagoen jendeak Euskara Sailera jo dezake.**

## TELP TAILERRA

Lehen TELP tailerrak izan zuen arrakasta ikusita, bigarrenaz antolatuko da tailer hori azaroan. Zertarako tailer hau? Euskara erabiltzen dugunean jaso ohi ditugun erantzun desegokiak aurrean nola jokatu aztertzen da eta modu praktiko batean, euskaraz berba egin gura dugunean askotan sortzen diren egoera deserosoetan hobeto sentitzen ikasteko.

**Interesa duenak Udaleko Euskara Sailera jo dezake.**